



«Denok daukagu azentua, eta oso aberatsa da»

HERNANI  
ÁLVARO VALERA BELMONTE 3

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



## Mundarro garaile, bi herrien arteko derbian

ASTIGARRAGA-HERNANI  
ESKUBALOIA

7



## Iker Salaberriak aurreneko garaipena lortu du Promoziokoan

URUMEA  
PELOTA

6



## Euskera, txoko guztietara

Urumea bailara osoan hainbat ekintza egingo dituzte eskoletako ikasleek gaur, Euskararen Egunaren harira. Urumea ikastolan, hala ere, atzo egin zituzten ospakizunak. Astigarragan, bestalde, herritar guztientzako ekitaldiak ere antolatu dira: antzerki saioa, eskertza ekitaldia...

2-3



## Gutxigatik, podiumetik kanpo

Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXVIII. Txapelketa jokatu zen igandean Zaldibarren. Eider Garro, Aritz Elizalde, Ianire Segurola eta Elaia Diaz aritu dira bertan

ASTIGARRAGA-HERNANI  
TRIKITILARI TXAPELKETA

5

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

**Asegururik ba al duzu?**  
**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20**  
www.funerariaorbegozo.com

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Erraudketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, korroak...

HERNANI ANDOAIN  
ASTIGARRAGA  
URNIETA  
GOIZUETA

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

# «Hiru hilabeteko ekimena egiteko proposamena luzatuko diegu, aurretik erronka bete dutenei»

laz sortutako Euskara Ari Du taldeak lanean jarraitzen du, besteak beste, datorren Euskaraldia antolatzeko. Orain, baina, Dobera Euskara Elkartearen barruan ari da. «Bi martxa» erabiliko dituzte, 2020an.

**HERNANI EUSKARA ARI DU**

Hernaniarrek urtebeteko erronkari egin zioten aurre lehengo urtean, Euskara Ari Du elkarteak antolatutako *Baietz Hernanik!* desafioan. Euskaldunek, gazteleraz izaten zituzten harremanak detektatu eta horietan euskerari eusteko saiakera egin zuten. Euskeraz ulertu bai, baina hitz egiten ez zutenek, berriz, euskaldunekin harremanak izatean, euskerari eutsi ziezaien eskatu behar zieten lagunei.

Urtebeteko erronka hori beteta, lanean jarraitzen du Euskara Ari Du taldeak. Baina aurretik, «bi martxatan» ariko direla azaldu dute, Dobera Euskara Elkartearen barruan, eta maila nazionaletik ere etorriko den Euskaraldia egitasmoarekin bat eginez.

**Euskara Ari Du-ri, jarraipena** Urtebeteko erronka betetzea ez da edonolako balentria, eta hori horrela, «Euskara Ari Du-ri jarraipena» eman nahi izan diotela azaldu dute taldeko partaideek, eta, era berean, «2020an etorriko den Euskaraldiarekin ere bat egin».

Horrexegatik, «2020an, nolabait bi martxa erabiliko» dituzte, azaldu dutenez. «Lan bat



*Euskara Ari Du taldeak astero elkartzen jarraitzen du, orain, Dobera Euskara Elkartearen barruan.*

egina dago Hernanin. Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, ohitura aldaketei epe luzeago batean eusteko lanean aritu gara esperimintatzen. Beraz, ez dugu mugatu nahi 15 egunetara, hori baino gehiago egin duten erakunde edo entitateekin. Hiru hilabeteko ekimena egiteko proposamena luzatuko diegu, aurretik erronka bete dutenei».

Bestetik, «maila nazionaletik etorriko den Euskaraldia ekimena kudeatuko dugu, banakakoekin nahiz eragile eta entitateekin».

#### **Aurkezpenak, urtarrilean**

Guztia martxan jartzeko lanean hasiak dira, eta urtarrilaren 13tik aurrera egingo dituzte aurkezpenak. Urtarrilean bertan «bizpahiru hitzaldi, eta beste formatu batzuetako ekitaldiak egingo dira, guztiari aurreneko irteera moduko bat emateko». Hortik aurrera, «urte osoa giro-

tzeko ekitaldiak» ere antolatuko dituzte.

Era berean, iazko saio batzuk, hizkuntzari nola eutsi ikasteko trikimailuen berri jasotzeko saioak, adibidez, berriro ere antolatzeko asmoa azaldu dute.

#### **Parte-hartzea, malgua**

Eta hori guztian, nola parte hartu? Modu desberdinak izango dituzte herritarrek, 2020an martxan jarriko diren ekimenean parte hartzeko.

Euskaraldia ere egingo da Hernanin, eta orain gutxi eman zituzten datak. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da, eta aurretik, Belarriprest eta Ahobizi figurez gain, ariguneak garrantzitsuak izango dira. Ariguneak izango dira entitateek identifikatutako espazioak, horietan hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera izan dadin. Azken hauek dagoeneko eman dezakete ize-

**«Beste maila bateko konpromisoa izango da. Aurrez aurreko harremana izango dugu haiekin, eta plan bat aurkeztuko diegu»**

na, eta arigunea zein den adierazi; 2020ko uztaileko arteko epea izango da horretarako. Ahobizi eta Belarriprest izango direnek, berriz, 2020ko iraila eta azaroa bitartean eman ahal izango dute izena.

Hernanin, ordea, «konpromiso haundiagoa nahi dutenekin libreago» aritzeko aukera emango du Euskara Ari Du taldeak. «Parte-hartzaileak identifikatzeko harremanetan jarriko gara haiekin urtariletik

aurrera, bai 15 eguneko Euskaraldian parte hartu nahi dutenekin eta baita luzeago aritu nahi dutenekin ere». Azken hauen kasuan, dena den, «ez da inon izena eman beharko», adierazi dutenez. «Beste maila bateko konpromisoa izango da. Aurrez aurreko harremana izango dugu haiekin, eta plan bat aurkeztuko diegu».

#### **Taldea, irekita**

Guztia kudeatu ahal izateko segi du martxan Euskara Ari Du taldeak, baina irekita daudela adierazi dute. Iazko erronkari aurre egiteko, elkarte bat sortu zuten, baina orain, Dobera Euskara Elkartearen barruan sartu den lan-taldea da, datorren urteko erronkari begira lan egingo duena.

«Bi-hiru hilabete badira, elkartzen hasi ginela. Lan-talde bat gara, eta irekita gaude, jende berria hartzeko!». **K**

Abenduaren 3a

**Euskararen nazioarteko eguna bada ere.....**

**Gozatu dezagun euskara urteko egun guztietan**

**Kronika**

euskara  
ari du

**DO  
BE  
RA**  
EUSKARA  
ELKARTEA

Larramendi Kalea, 11 HERNANI  
943 33 27 99  
dobera@dobera.eus

# «Hasieratik saiatu naiz badakidana erabiltzen; hizkuntza bat horrela ikasten da»

Urtebete da Álvaro Valera Belmonte euskara ikasten hasi zela. Ez luke edonork asmatuko, daukan maila ikusita!

**HERNANI** ÁLVARO VALERA BELMONTE

Murtzian, hiriburuan jaio zen Álvaro Valera Belmonte orain 29 urte. Urtebete baino gehixeago daramaki Euskal Herrian, eta urtebeteren bueltan Hernanin, Santa Barbara auzoan. «Mendira joatea gustatzen zait, eta eskalaztea. Eta jendea ezagutzeta», dio. Horrek guztiak lagundu dio, hain zuzen, euskara ikasten, hain denbora gutxian, eta hain ondo!

## Nolatan etorri zinen Euskal Herrira? Noiz?

Ekonomia ikasi nuen, eta lan bila ari nintzen eta ez nuen ezer aurkitzen. Horregatik, ez neukanek lanik, joan nintzen Pirinioetara eski estazio batera, lan egitera, eskiatzera... Pixka bat ondo pasatzera. Egoteko supermerkatu batean, nahiago nuen kanpora joan. Han ezagutu nuen lagun bat. Bere anaiak lan egiten zuen hemengo enpresa batean, eta etorri nintzenez behin bisita bat egitera, utzi nuen curriculum enpresan. Eta urte bat eta gero deitu zidaten lan egiteko kontulari bezala. Berez zen nire lehenengo aukera lan egiteko nire ikasketekin lotuta. Horregatik etorri nintzen, lan egitera.

## Ordurako bazenekien euskaraz?

Ezer ez. Beno, hitz batzuk: kaxo, egun on... Gutxi-gehiago. Hemengo lagunak neuzkanek, gauza batzuk bai.

## Eski estazioan hasi zinen euskara ezagutzen?

Ez eski estazioan bertan, baina bai,



Álvaro Valera Belmontek txintxo-demonio hartu du euskaltegirako bidea, elkarriketa bukatuta.

zen hemengo nire lagunarekin. Ez zen lehenengo-lehenengoa. Baina hemengo pertsona batekin harremana edukitzeak eragin zuen. Berez, gure harremana erdaraz zen. Baita ere, musika pixka bat euskaraz entzuten nuen. Kortatu.

## Ikasi, hortaz, hemen egin duzu?

Duela urte bat hasi nintzen ikasten. Iritsi nintzen 2018ko apirilean eta hasi nintzen euskaltegian urrian. Baina esan behar da nire ingurua euskalduna dela. Eta gainera, erraztasuna daukat hizkuntzekin.

## Gauza bat da euskaltegian ikastea, eta bestea, euskaldunen artean murgiltzea...

**Laguntzen dute euskaldunek?** Nik eskertu behar diot nire inguruari. Nire lagunak hasieratik saiatu dira nirekin harremana euskaraz edukitzen. Nik ez daukat lotsarik hitz egiteko hizkuntza batean, ez dudana ondo menderatzen. Orduan, hasieratik beti saiatu naiz gauzak esaten, badakidana erabiltzen. Eta berez, hizkuntza bat horrela ikasten da, ezta?

## Zer izan da zailena?

Nik ikasi nituen frantsesa eta ingelesa institutuaren, denok bezala ia-ia. Euskara berez oso desberdina da beste hizkuntzen ondoan. Hasieran kostatu zitzaidan pixka bat. Deklinabideak bukaeran izatea niretzat ez zen normala hizkuntza batean. Nik ikasi nituen hizkuntzak izan dira erdarazko forma berdinekoek. Orduan, bukaeran jartzea *lagun*-ekin, *etxe*-ra... niretzat zaila zen. Hori izan da zailena, eta aditz-laguntzaileak. Hasieran ez da erraza. Nor-nori-nork... Baina nire ustez oso ondo moldatu naiz. Nik banekien niretzat hizkuntzak errazak zirela. Baina ez naizenez Espainiatik kanpo bizi denbora nahikoa beste hizkuntza bat menderatzeko eta egunero hitz egiteko eta erabiltzeko, horregatik ez nuen beste hizkuntza bat hain azkar menderatu.

## Ingelesarekin hobeto moldatzen zara?

Orain euskara irabazten ari da! Baina denbora gelditzen zait. Agian, hitz egiteko, euskararekin hobeto, soltura gehiago dau-

kat. Baina ulertzeko, batez ere, irakurtzean... Adibidez, Kronika hartzen dudanean, kostatzen zait pixka bat. Pentsatu behar dut. Ingeleseko egunkari bat, euskarazkoa baino errazagoa da nire ustez. Baina hitz egiteko, seguru asko, euskararekin hobeto. Egunero hitz egiten dudalako.

## Murtziar lagun bat ere egin omen zenuen hemen, eta euskaraz aritu zineten...

Bai! Lagun batek aurkeztu zidan Donostian, eta hitz egin genuen euskaraz. Eta lagunak esaten zuen: *zein polita, bi murtziar elkarrekin euskaraz hitz egitea!*

## Eta arraroa, ezta?

Ez. Euskaldun berri batekin euskaltegian bezala!

## Euskara eta euskalkiak, gaztelaniaz ere nork bere azentua... Horren aldekoa zara?

Jendeak hemen esaten dit nire erdara ez dela ulertzen. Baina haien euskara da nahi duten bezalakoa! Denok daukagu azentua, eta nire ustez hori oso aberatsa da. Hasieran, hona iritsi nintzenez,

«Denok daukagu azentua, eta nire ustez hori oso aberatsa da»

hemengo jendearekin ulertzea kostatu zitzaidan. Zuek diozue Gipuzkoan nahiko batuan hitz egiten dela, baina kanpotarrentzat edo euskaraz hitz egiten ez dugunontzat zaila da. Niretzat, hemengo euskara eta nire probintziako erdararekin, ia-ia, antzekoa gertatzen da; bakoitzak hitz egiten du nahi duen bezala!

## Gaur Euskararen Eguna da. Arraroa egin zaizu?

Iritsi nintzenez Hernanira, lehenago Donostian bizi nintzen, Euskararen Eguna zen justu. Arraroa? Hemengo ospakizuna da. Normala da hemen. Iaz grazia egin zidan udaletxean Konstituzio Eguna aldatu zela Euskararen Egunarengatik. Hemengo historiari begira, ulertzen dut.

## Orain zein mailatan ari zara ikasten? Zein duzu helburua?

Hasieran, nire helburua zen lagunekin hitz egitea, kalean hitz egitea. Baina nire ustez hori lortu dut. A1 maila egin nuen eta aurten B2 mailan nago. Hasieran kostatu zitzaidan pixka bat baina, orain, hobeto. Baina orain ikasten ari naizena ez da ia-ia kalean erabiltzen. Adibidez, egunkaria irakurtzen dugu, irratia entzuten dugu... Eta beste maila bat da. Saltoa oso handia izan da. Esan nahi dut kurtso honetako gauzak ez direla kalean ikasten. Orduan, ez dut hain azkar ikasiko. Orain ikasi egin behar da! Ez da nahikoa kalean aritzearekin. Ikasi behar da etxean! Baina ezin dut aurkeztu azterketa egitera, HABEko burokraziagatik ezin delako mailarik saltatu, eta beraz, presarik gabe ari naiz. Oraindik ez dut titulurik behar. **K**

**æek**

**Hernanialdeko AEKn ere, euskara ari du!**

HERNANI Larramendi 11, behea.  
ASTIGARRAGA Kale Nagusia 48 (Kultur Etxea)  
[www.aek.eus](http://www.aek.eus)

**HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA**

**19/20 ikasturtea**

→ Euskaltegira etortzeko denbora-arazoak dituzu?  
Astean 2 eguneko modulua badugu

→ Dirulaguntza handiak

**%70** Hernanin erroldatuta bazaude  
**%90** langabetu ikasle edo erretiratuentzat

**HERNANIKO Udal Euskaltegia**  
Karrobieta 63 (Anbulatorio zaharra)  
HERNANI  
Tel. 943 331 896  
[euskaltegi@hernani.eus](mailto:euskaltegi@hernani.eus)

# Euskeraren Eguna ospatuko da gaur batez ere eskoletan, eta euskera indartzeko erabiliko da

Bailarako ikastetxe ia denetan antolatu dira ekitaldi desberdinak eta Astigarragan eskertza ekitaldia, antzerkia, emotikonoen eta haurrentzako jolasak egongo dira arratsaldean zehar. Urumean atzo antolatu zituzten ekintzak.

## URUMEA EUSKERAREN EGUNA

Euskeraren Eguna da gaur, abenduaren 3a; eta Urumea bailara osora zabalduko dira ospakizunak. Bereziki, eskoletara. Izan ere, urtero bezala, egun berezia izango da eskola guztietan, Euskeraren Egunerako propio prestatutako ekintzekin. Hala ere, Astigarragan antolatu dira ekintzak.

Astigarragako Herri Eskolan, erromeria izango dute ikasle eta irakasleek arratsaldean. Lehen Hezkuntzakoak areto nagusian elkartuko dira Gorka, Xabier eta Ibonen eskutik. Lehen, bigarren eta hirugarren mailakoak 14:45etatik 15:15etara eta lau, bost eta seigarren mailakoak 15:30etatik 16:00etara. Txikiak, Haur Hezkuntzakoak, Idoia Zabaletarekin patio txikian elkartuko dira.

Herri Eskolako 5 eta 6 mailakoek «100 da 100 berrehun ordu euskaraz» egitasmoa bideratuko dute astean zehar eta partehartzaileek paparrean txapa bereizgarri bat eramango dute.

## Astigarragan eskertza 'ahotsak.eus' proiektuko partaideei

Astigarragako herrian ere antolatu dituzte ekintzak eta nabarmentzekoa da 17:30etan 'ahotsak.eus' proiektuko partaideei egingo zaien aitortza udaletxean. Bestetik, Gaztelekuan arratsaldean zehar emotikonoen jolasa antolatu da eta Xaguxarrekin haurrentzako jolasak egongo dira eskolako patioan 16:30etatik 18:00etara.

Kultur etxean antzerkia ere egongo da. 19:30etan, Mirari

Martiarena eta Idoia Torregarairren *Bakean dagoena bakean utzi* antzezlan hasiko da eta sarrera 3 euro dira. Ereñotzuko Txirrita eskolan, berriz, arratsaldean elkartuko dira ikasle, irakasle eta gurasoak, frontoian, eta joko eta tailerrak, zein musika eta dantza izango dituzte.

Goizuetan ere egingo dute euskeraren inguruan ekitaldia. Egun guztian zehar plazan musika egongo da jarrita euskal abestiekin.

## Elizatzko ikastolan, egun osoko egitaraua

Hernanin, joan den astean hasi ziren jolas garaian euskera indartzeko jolasak egiten, Elizatzon; eta egun osoko egitaraua prestatu dute gaur. Goizetik haur eta lehen hezkuntzako ikasleek idatzi dituzten leloak eta aterkia jarriko dituzte.

Euskerazko irakurketa saioa egingo dute Langilen, berriz; abestiak, hizkuntzarekin lotutako jolasak... izango dituzte. Herri kirolak izango dira DBHkoen gaia Inmaculadan, eta Txundi gaitzazu! ikuskizuna eskainiko dute LH eta HHkoek. Eta Urumean, abesti, dantza eta olerki emanaldia egin zuten atzo.

**Hernaniko udal egutegian, jai Bestalde, Hernaniko Udalak jakinarazi du, abenduaren 3a jaieguna dela udal egutegian. Hori horrela, itxita egongo dira udal eraikin gehienak, gaur: udalategia, Udal Euskaltegia, Biteri eta liburutegia, esaterako. Kiroldegia 08:30etatik 13:30etara zabalduko dute. Eta ohiko ordutegia izango du Musika Eskolak. **K****



Urumea ikastolan atzo ospatu zuten Euskeraren Eguna jaialdi eder batekin.

## EGITARAUA

### ELIZATXO IKASTOLA

**09:30:** LHko ikasleek idatzi dituzten leloak eta aterkia jarriko dituzte ikastolako frontoian. HHkoek, euri ttantak jarriko dituzte frontoian. Euri ttantetan, haur bakoitzak eta bere familiak, gehien gustatzen zaien euskerazko hitza idatzita edukiko dute. Ikasleek idatzi dituzten euskerazko hitzak bozkatu ahal izango dira. Gehien bozkaturia den hitza, ikastetxeko web orrian argitaratuko da.

**09:30-10:30:** LHko euskerazko irakurketa saioa egingo dute, bakoitzak bere gelan.

**10:30:** LHko ikasleak HHko ikasleentzako joango dira abestia abestera eta HHko ikasleek ere abesti bat abestuko diete dagoen taldeari. Ondoren hamaitakoa egingo dute bi taldeak elkarrekin.

**11:30:** Patioan elkartuko dira denak zenbait dantza dantzatu eta abesteko. Kokapena: Ikasturte amaierako jaialdian izaten den bezalakoak.

HHko ikasleek *Ohizu bat entzun da eta Ahoa bizi, belarriak prest.* LHko ikasleek *Emaiozu bostekoa.*

**14:30:** LH 1, 2 eta 3ko ikasleek abesti emanaldia eskainiko dute aniztasun gelan.

**15:15:** LH 4, 5 eta 6ko ikasleek abesti emanaldia eskainiko dute aniztasun gelan. Abestuko diren abestiak *Ahoa bizi, belarriak prest; Behin Betiko; Lau Teilatu Ganean; Bertsoak; Lasai, lasai; Euskal Herrian Euskaraz.*

### LANGILE IKASTOLA

LHko guztiek batera emango diote hasiera egunari *Euskal Herrian Euskaraz* kanta abestuz. 50garren urteurrena dela eta erronka ezberdinak proposatu dituzte: hitz kuttunak, euskalkiak eta sinonimoak, euskal musika... Haur Hezkuntzan gurasoekin egingo da hizkuntzarekin jolasteko dituzten altxorren bilduma. Hau da, ezagutzeko ditun esaera zaharrrak, aho-korapilo eta abar.

### INMACULADA IKASTETXEA

DBH: Aurten herri kiroletan zentratuko dira ospakizunak. Goizean hauen jatorria landuko da klaseetan eta arratsaldean herri kirol ginkana egingo da eskolako patioan.

LH eta HH: Goizean muralak, aur-

pegi margoketa, mahai jolasak, karaokea... egingo dira. Arratsaldean *Txundi Gaitzazu!* ikuskizuna egingo da eskolako aretoan.

### TXIRRITA ESKOLA

Arratsaldean gurasoekin batera frontoian elkartu eta joko tailerrak izango dira musikaz girotuta eta dantzatzeko asmoarekin.

### ASTIGARRAGA

**Eskolan: 14:45-16:00:** LHkoek erromeria Gorka, Xabier eta Ibonen eskutik. Hau Hezkuntzakoak patio txikian. 5 eta 6 mailakoek *100 da 100 berrehun ordu euskaraz* egitasmoa bideratuko dute astean zehar eta parte-hartzaileek paparrean txapa bereizgarri bat eramango dute.

**Herrian: 17:30:** «ahotsak.eus» proiektuko partaideei eskertza udaletxean.

**16:30-18:00:** Xaguxarrekin haurrentzako jolasak eskolako patioan.

Gaztelekuan arratsaldean zehar emotikonoen jolasa.

**19:30:** Antzerkia kultur etxean *Bakean dagoena bakean utzi* (3 euro). Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai.

## Kronika

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 08 99  
688 660 714

**Lege gordailua:**  
SS-1469/2018  
**ISSN:** 2659-5036

**Eposta:**  
kronika@kronika.eus,  
astigarraga@kronika.eus,  
urumea@kronika.eus eta  
publi@kronika.eus.  
**www.kronika.eus**

**Lan-taldea:**  
A. Arbelaitz, O. Egaña,  
I. Goñi, L. Goñi, B. Los  
Arcos, A. Moreno, J. Osa,  
M. Ramirez de Alda, L.  
Rekondo eta J. Zubitur.

### Argitaratzailea:



KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 27 99  
**Eposta:** dobera@dobera.eus  
**www.dobera.eus**

### Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

**DOBERA BAZKIDEAK KRONIKALARIAK**

TOKIKOM



## Kontrataziorako dirulaguntzak esleitu ditu Udalak enpresentzako

Kolektibo espezifikoetako langabeak kontratatzen dituzten enpresa pribatuei emango dira 3.000 eta 9.000 euro arteko dirulaguntzak.

HERNANI UDALA

Hernaniko Udalak enpresa pribatuentzako kontrataziorako dirulaguntzak esleitu ditu. Onuradunak Hernaniko enpresak dira eta kolektibo espezifikoetako langabeak kontratatzeke 3.000 eta 9.000 euro artean doazen laguntzak dira baldintzen arabera. Kolektibo espezifikoak: DBSEren jasotzaileak, epe luze-ko langabetuak, 35 urtetik beherrakoak eta 55etik gorakoak dira.

Baldintzak: 1.-Langabezia dauzen pertsonak kontratatzen dituzte lanaldi partzialerako (%50) edo lanaldi osorako, Gizarte Segurantzako erregimen Orokorrean eta gutxienez 3 hi-

labeteko kontatuarekin. Kontraturiko pertsonak honako baldintzak bete beharko dituzte: A.- 2019ko maiatzaren 31n baino lehen arentian Hernanin errolaturik egotea. B.- kontratatu beharreko pertsona lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.

Dirulaguntza jaso ahal izango dute 2019ko maiatzaren 31tik aurrera egindako kontratazioak. Kontratazioan, diruz lagundu daitekeen denbora tartea (gehienera 6 hilabete), muga 2020 ekainaren 30ean izango du.

2.-Diru-laguntza jasoko duen kontratazioak ekarriko du en-

presa onuradunaren plantillaren hazkunde garbia, 3 hilabete aurreko plantillarekin alderatuta.

3.- Kontratatzen den pertsonak enpresa kontratatzailearekin ezin du aurreko 6 hilabeteetan eduki kontratua sinatua.

### Esleitzeko prozedura

Laguntza lehiaketa bidez emango dira eta diru-laguntza eskaerak hiru epetan ebatsiko dira. Lehenengo ebazpena: 2019ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztutako eskaerak. bigarren ebazpena: 2020ko apirilaren 15 baino lehen aurkeztutako eskaerak

Eskabideak egiteko aurrez aurre Hernaniko Udaleko HHZn, Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren sarrera erregistroan edo posta bulegoetan egin daitezke. **K**



Elkarteen Arteko Mus Txapelketako saridunak Xalapartan.

## Joxe eta Mikel Elkarte Artekoan garaile

HERNANI MUS TXAPELKETA

Onddi tabernako Joxe Amondarain eta Aralar tabernako Mikel Tolosa izan dira Hernaniko Elkarte Arteko Mus Txapelketan irabazleak. Sariak banatu ziren asteburuan, afalostean, Xalaparta elkartearen bertan jokatu baita aurten txapelketa. Txapeldunek Karobi elkartearen ordezkatu zuten txapelketaren 35garren edizioan.

## 'Emisio Etena'k, Benito Ansola Saria

URUMEA ZINEMA

Aurtengo Benito Ansola Saria *Emisio Etena* lanak eraman du. Bosgarren edizioko irabazlea Oier Fuentesek zuzendu du eta dokumental labur honetan Arantza herrian frankismoari desafio eginez euskal kultura bizirik mantentzen zuen azken irratari buruzko ikerketa lan sakona da. 3.000 euroko saria jaso du Fuentesek proiektua 10 hilabeteetan gauzatzeko. Lan borobil hau datorren urteko 43. Euskal Zine Bileran estreinatuko da lehen aldiz.

## Odol emaleek zita, gaur anbulategian

HERNANI ODOL EMATEA

Ohi bezala, hileko aurreneko asteartean jarri dute odola emateko zita, Hernanin. Gaur izango da, anbulatorioan, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara. Azaroko hitzorduan, 44 lagunek eman zuten odola. Jakinarazi dute, aukera izango dela gaur, Odol Emaileen Elkartearen Gabonetako loteria erosteko.

## Negulekuak, Doberak antolatuta Gabonetan

Taldeak Hernanin eta Ereñotzun osatzen dira eta aukera dago izena emateko. Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra egingo dira.

HERNANI EREÑOTZU AISIALDIA

Dobera Euskara elkarteak Negulekuak antolatu ditu berriro ere, aurtengo Gabonetako oportunitatean aisialdiaz euskeraz gozatu ahal izateko.

Ereñotzun eta Hernanin osatzen dira taldeak, eta izen-ematea irekita dago denetan. Hamar egunetan zehar luzatuko da Negulekua.

**Kantu, jolas eta irteera txikiak egingo dira goizez**

Negulekuak abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra bitartean egin-

go dira, jai-egunak eta asteburuak kenduta, goizeko 09:00etatik 13:30etara.

Hainbat ekintza egiteko aukera izaten da: ipuin kontakizunak, tailerrak, jolasak, kantu saioak, irteera txikiak...

**Izenematea irekita eta orria abenduaren 13a baino lehen utzi behar da**

Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete, dagoeneko. Negulekuak 3 eta 10 urte bitarteko haurrei (2009-2016 artean jaiotakoei) zuzendutakoak dira. Astebetez izena emateak 50 euro balio ditu, eta bi astetarako, 90 euro; Dobera-Kronikako bazkideentzat, berriz, 40 eta 75 euro balio du izenemateak.

Doberan utzi behar da izen-emate orria, abenduaren 13a baino lehen. Probatzen duenak errepikatzen du. **K**



Euskal Herriko Txapelketa ezin estuagoa izan zen.

## Laugarren eta bosgarren sailkatu dira bailarako trikitilari bikoteak

Ianire Segurola hernaniarra eta Elaia Diaz astigartarra izan ziren laugarren eta Eider Garro eta Aritz Elizalde hernaniarrak 5garren sailkatu ziren.

URUMEA TRIKITIXA

Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXVIII. Txapelketa jokatu zen igandean Zaldibarren eta bailarako bi bikote aritu ziren. Ianire Segurola hernaniarra eta Elaia Díaz astigartarra podiu-

metik oso gertu geratu ziren laugarren sailkatuz eta Eider Garro eta Aritz Elizalde hernaniarrak bosgarren amaitu zuten.

**Txapela 0,25 puntugatik erabaki zen Arzelus eta Plazaolaren alde**

13 eta 19 urte bitarteko trikitilarien txapelketa zen, eta parte-hartzaile guztiek porrusalda, fandangoa eta arin-arina jo behar izan zituzten.

Epaileek hala erabakita, Irati Arzelus eta Mirari Plazaola izan ziren txapeldunak 132,35 puntu eskuratuta. Bigarren, alde txikiarekin (132,1 puntu), Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte sailkatu

ziren, eta Etxanizek eta Alberdik 119,5 puntu lortuta eskuratu zuten hirugarren postua. Segurola eta Diazek 114 puntu batu zituzten, hirugarren postutik 4,5 puntura.

Honako hau da Zaldibarren jokaturiko Euskal Herriko Trikitilari Gazteen txapelketako sailkapena: 1. Irati Arzelus eta Mirari Plazaola (132,35 puntu). 2. Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte (132,1 puntu). 3. Aritz Etxaniz eta Enaitz Alberdi (119,5 puntu). 4. Ianire Segurola eta Elaia Diaz (114 puntu). 5. Eider Garro eta Aritz Elizalde (110,7 puntu). 6. Julen Labaka eta Garazi Larrañaga (109,45 puntu). **K**

# Aurreneko garaipena lortu du Iker Salaberriak, Promoziokoan

19-22 nagusitu zen goizuetarra, bigarren jardunaldian. Aimar Olaizolak, ordea, 13-22 galdu zuen. Asteburu ona izan dute Hernaniko esku pelotariak; eta palaz, finaletik kanpo geratu dira Alaitz Barrenetxea eta Maddi Iriondo, 14-30 galduta.

## URUMEA PELOTA

Alderantzizko emaitzak lortu dituzte asteburu honetan, bi esku pelotari profesional goizuetarrek. Estreinako jardunaldian galdu ondoren, aurreneko garaipena lortu du Iker Salaberriak, Promozioko Binakako Txapelketan: 19-22 irabazi zuen larunbatean, Garmendiarrekin, Zabala eta Ruizen kontra. Eta aldiz, ezin izan zion segida eman Aimar Olaizolak, aurreko asteburuko garaipenari: 13-22 galdu zuen Urrutikoetxearekin, Artola eta Imazen kontra, Bina-

kako Txapelketa Nagusian.

Profesionalatik kanpo, berriz, asteburu ona izan da, esku pelotari hernaniarrentzat. Izan ere, frontoiko Gipuzkoako Txapelketan emaitza onak ez lortu arren, primeran aritu dira, bai trinketean, eta baita txapelketa pribatuetan ere. Guztira, 16 partidu irabazi, eta 11 galdu.

Baztango Txapelketan, esaterako, semifinaletara sailkatu dira lau hernaniar: infantiletan Aiur Elizazu, Garaikoetxea nafarrekin, eta Auritz Txintxurreta eta Oier Azpeitia; eta kadete mailan Jon Jara, Eskuza

arabarrarekin. Asteburu honetan jokatu dituzte.

Trinketean, berriz, primeran ekin diote Unai Alvarez, Xabat Pagola eta Endika Arizmendin nagusiek, Oinatz Insausti eta Aimar Mujika jubenilek, eta Jon Jara kadeteak, aurreneko partidu irabazita. Mikel Lasak soilik galdu zuen, Insaustiren kontra aritu baitzen.

Asteburuko porrota gogorrenak, izan dira Unax Arabaolazak eta Unax Manterola kadeteek jasotakoa, eta Apaolaza eta Lasa seniorrena. Bi bikoteek, galdu egin zuten Gipuzkoako

Txapelketaren ligaxkako azkeneko partidua, eta horrekin, txapelketatik kanpo geratu dira.

Astigartarren artean, berriz, irabazi egin zuen Eñaut Lizeaga jubenilak, buruz buru, ligaxkako bigarren partidua ere. Kadete mailan, berriz, galdu egin zuten Aner Urdangarinek eta Asier Saralegik, binaka; eta baita Saralegik berak ere, banaka.

## Finaletik kanpo, Alaitz Barrenetxea eta Maddi Iriondo

Palistek, berriz, partidu gutxi izan dituzte asteburuan, baina garrantzitsuak. Semifinala zeu-

katzen Alaitz Barrenetxeak eta Maddi Iriondok, jubeniletan; eta 14-30 galdu zuten, Intxurren kontra. Bi urte helduagoak ziren kontrarioak, eta indarrean nabaritu zen hori. Ez, ordea, jokoan: hernaniarrak hobeto aritu ziren, baina indarrak erabaki zuen finalerako pasea.

Nagusien lehenengo mailan, 30-29 irabazi zuten Amaia Irazustabarrenak, Ariane Arrietak eta Maider Huizik; eta partidu guztiak irabazita, finalean izango dira. Bigarren mailako finalean ariko dira Ekhine Balerdi eta Garazi Urdangarin. **K**

## ERRUGBIA

|                        |                           |       |
|------------------------|---------------------------|-------|
| MUT. OHOREZKO MAILA    | Hernani-El Salvador       | 5-17  |
| MUT. SENIOR B (SUB 23) | Hernani-El Salvador       | 0-36  |
| MUT. KADETEAK (SUB 18) | Txingudi-Hernani Atletico | 0-61  |
| MUT. KADETEAK (SUB 16) | Txingudi-Hernani Atletico | 12-34 |

## FUTBOLA

|                          |                             |      |
|--------------------------|-----------------------------|------|
| NSK. EUSKAL LIGA         | Hernani-Aurrera de Vitoria  | 3-1  |
| MUT. OHOREZKO ERREG.     | Urola-Hernani               | 1-3  |
| NSK. OHOREZKO ERREG.     | Hernani-Bergara             | 0-2  |
| MUT. ERREG. PREFERENTEA  | Mundarro-Axular             | 1-1  |
| MUT. ERREG. PREFERENTEA  | Hernani-Oiartzun            | 1-0  |
| MUT. JUB. LIGA NAZIONALA | Real Sociedad-Hernani       | 2-1  |
| MUT. JUB. OHOREZKO MAILA | Santo Tomas Lizeoa-Mundarro | 1-2  |
| MUT. JUB. OHOREZKO MAILA | Hernani-Billabona           | 1-2  |
| MUT. JUB. 1GO MAILA      | Mundarro-Sanse              | 1-2  |
| MUT. JUB. 1GO MAILA      | Ordizia-Mundarro            | 5-2  |
| NSK. KAD. OHOREZKO MAILA | Anaitasuna-Hernani          | 1-1  |
| MUT. KAD. OHOREZKO MAILA | Mundarro-Añorga             | 0-1  |
| MUT. KAD. OHOREZKO MAILA | Beti Ona-Hernani            | 1-0  |
| NSK. KAD. 1GO MAILA      | Mundarro-Ostadar            | 7-0  |
| MUT. KAD. 1GO MAILA      | Billabona-Mundarro          | 0-3  |
| MUT. KAD. 1GO MAILA      | Lengokoak-Hernani           | 4-3  |
| NSK. INF. OHOREZKO MAILA | Tolosa-Hernani              | 2-0  |
| MUT. INF. OHOREZKO MAILA | Hernani-Mundarro            | 2-3  |
| MUT. INF. 1GO MAILA      | Mundarro-Ekintza            | 1-2  |
| MUT. INF. 1GO MAILA      | Hernani-Tolosa              | 2-4  |
| MUT. INF. TXIKIAK        | Mundarro-Igeltegi           | 7-0  |
| MUT. INF. TXIKIAK        | Beti Ona-Hernani            | 2-1  |
| MUT. ALEBINAK            | Añorga-Mundarro             | 10-4 |
| MUT. ALEBINAK            | Urnieta-Hernani             | 5-4  |

## PALA

|                         |                      |       |
|-------------------------|----------------------|-------|
| NSK. NAGUSIAK 1GO MAILA | Hernani/Su Berri 2   | 30-29 |
| NSK. JUBENILAK          | Hernani 2/Intxurre 2 | 14-30 |

## SASKIBALOA

|                        |                        |       |
|------------------------|------------------------|-------|
| MUT. GIPIUZ. 1GO MAILA | Ordizia-Mundarro       | 68-57 |
| MUT. GIPIUZ. 1GO MAILA | Zast Zarautz-Hernani   | 69-65 |
| NSK. GIPIUZ. 2. MAILA  | Goierri-Mundarro       | 76-74 |
| MUT. GIPIUZ. 3. MAILA  | Alde Zaharra B-Hernani | 74-67 |
| MUT. GIPIUZ. 3. MAILA  | Oiarso-Mundarro        | 43-60 |
| NSK. JUNIORRAK         | Kurkubi-Mundarro       | 45-54 |
| MUT. JUNIORRAK         | Askatuak-Hernani       | 60-62 |
| MUT. KADETEAK          | Goierri-Hernani        | 24-38 |
| MUT. KADETEAK          | Mundarro 1-Eibar       | 25-48 |
| MUT. KADETEAK          | Atletico SS-Mundarro 2 | 34-59 |
| MUT. INFANTILAK        | Easo-Hernani           | 69-27 |
| MUT. INFANTILAK        | Easo-Mundarro          | 64-15 |

## BOLEIBOLA

|                   |                            |     |
|-------------------|----------------------------|-----|
| MUT. EUSKAL LIGA  | Hernani-Bera Bera          | 0-3 |
| NSK. GIPIUZ. LIGA | Hernani-Ostadar            | 3-0 |
| NSK. KADETEAK     | Summa Aldapeta 1-Hernani 1 | 1-3 |
| NSK. INFANTILAK   | Summa Aldapeta 2-Hernani 1 | 3-0 |
| NSK. INFANTILAK   | Hernani 2-Summa Aldapeta 1 | 3-0 |

## ESKUBALOA

|                 |                   |       |
|-----------------|-------------------|-------|
| NSK. JUBENILAK  | Mundarro-Hernani  | 30-15 |
| MUT. JUBENILAK  | Hernani-Donibane  | 42-36 |
| NSK. KADETEAK   | Mutriku-Hernani   | 12-15 |
| MUT. KADETEAK   | Hernani 1-Eibar   | 28-30 |
| NSK. INFANTILAK | Hernani-Usurbil   | 14-13 |
| MUT. INFANTILAK | Egia 2-Hernani 1  | 24-28 |
| MUT. INFANTILAK | Hernani 2-Ordizia | 19-36 |

## ESKU PELOTA

|                     |                                       |       |
|---------------------|---------------------------------------|-------|
| MUT. BINAKAKO TXAP. | Olaizola II-Urrutikoetxea/Artola-Imaz | 13-22 |
| MUT. PROMOZIO TXAP. | Zabala-Ruiz/Salaberria-Garmendia      | 19-22 |
| MUT. NAGUSIAK       | Lapke/Apaolaza-Lasa                   | 22-8  |
| MUT. NAGUSIAK       | Gazteleku/Iñigo Labaka                | 22-11 |
| MUT. NAGUSIAK       | Alde Zaharra/Josu Altuna              | 22-17 |
| MUT. JUBENILAK      | Oiarpe/Eñaut Lizeaga                  | 15-22 |
| MUT. JUBENILAK      | Behar Zana/Mujika-Insausti II         | 22-21 |
| MUT. JUBENILAK      | Aloña Mendi/Unax Uitz                 | 4-22  |
| MUT. JUBENILAK      | Aloña Mendi/Anartz Oiartzabal         | 11-22 |
| MUT. KADETEAK       | Deskarga-Alegria/Urdangarin-Saralegi  | 22-4  |
| MUT. KADETEAK       | Izurun/Arabaolaza-Manterola           | 22-17 |
| MUT. KADETEAK       | Unai Etxarri/Oiarpe                   | 4-18  |
| MUT. KADETEAK       | Jon Jara/Tolosa                       | 5-18  |
| MUT. KADETEAK       | Oier Alegria/Zazpi Iturri             | 11-18 |
| MUT. ALEBINAK       | Gure Txeru/Joseba Arretxe             | 0-2   |
| MUT. ALEBINAK       | Gure Txeru/Xabier Gomez               | 2-1   |
| BAZTANGO TXAP.      | Txintxurreta-Azpeitia/Ilunpe          | 18-11 |
| BAZTANGO TXAP.      | Garaikoetxea-Aiur Elizazu/Ilunpe      | 18-15 |
| BAZTANGO TXAP.      | Manterola-Martin/Irurita              | 10-18 |
| BAZTANGO TXAP.      | Jon Jara-Eskuza/Alde Zaharra          | 18-3  |
| ZANGOZAKO TXAP.     | Mattin Arluziaga/Larrainzar           | 18-8  |
| ZANGOZAKO TXAP.     | Xabier Apaolaza/Imaz                  | 18-15 |
| ZANGOZAKO TXAP.     | Unax Uitz/Perez de Ciriza             | 18-8  |

## ESKUBALOA

|                |   |       |
|----------------|---|-------|
| 1GO PARTIDUA   | Goikoetxea V-Arruarte/Urrutia II-Zubiri | 35-26 |
| BINAKAKO TXAP. | Juanenea-Barrenetxea IV/Ansa II-Ion     | 40-35 |
| BINAKAKO TXAP  | Uterga-Agirrezabala/Matxin III-Endika   | 40-37 |
| 4. PARTIDUA    | Seguroa-Labaka/Aldabe-Garces            | 30-28 |

## WATERPOLOA

|                |                 |     |
|----------------|-----------------|-----|
| MUT. SENIORRAK | Hernani-Getxo B | 7-6 |
|----------------|-----------------|-----|

# Asteburu gozoa neskek, eta gazia mutilek, senior mailan

Emaitza bera izan zuten senior mailako bi taldeek: 3-0. Nesken kasuan, aldekoa; mutilek, ordea, galdu egin zuten Bera Beraren kontra.

## HERNANI BOLEIBOLA

Nahiz eta emaitzak askotari-koak izan, pozik egoteko moduko asteburua izan zuten Hernaniko boleiboleko taldeek, senior mailan, batez ere.

Nesken kasuan, erraz irabazi zioten Lasarte-Oriako Ostadarreko kideei, 3-0. Hiru setak haien esku izan ziren, dudarik gabe: 25-17, 25-8 eta 25-23 irabazita. Hori horrela, eta partidurik galdu gabe, sailkapenaren aurreneko postuan mantentzen dira.

Mutilek aldiz, emaitza bera izan zuten, baina aurkariaren aldekoa. 0-3 galdu zuten Bera Bera taldearen kontra, gizonezko Euskal Ligaren liderraren kontra, hain zuzen.

Galdu bai, baina ederki borrokatutako partidua egin zuten herritarrek. Izan ere, bazekiten maila altuko taldea zutela



3-0 irabazi zioten hernaniarrek Ostadar taldeko neskei.

aurretik, Estatuko lehenengo mailan jokatu baitzuen iaz, eta halaxe izan zen.

Partiduak bi zati izan zituen: aurrenekoa, lehen jokoa; eta bigarrena, bigarren eta hirugarren jokoak. Lehenengo jokoan etxeoak urduri zeuden, eta 13 akats eginda, 16-25 erraz galdu zuten. Hurrengo bi jokoak ore-

katuagoak izan ziren: 23-25 eta 20-25ko emaitza izan zuten, hurrenez hurren.

Urduritasunak eta esperientzia faltak hainbat akats egitera eraman zituen.

Orain bi astera jokatuko dute hurrengo partidua, Logroñoren kontra, haien etxean. Partidu gogorra izango da hau ere. **K**



30-15 irabazi zuten astigarrarrek, Hernaniren aurka.

## Porrotak baino garaipen gehiago, oraingoan

Mundarrok irabazi zuten neska jubenilen derbia; eta Hernaniko mutil jubenilek ere garaipena lortu zuten.

### ASTIGARRAGA HERNANI ESKUBALOIA

Zazpi partidu jokatu ziren asteburuan, erdia baino gehiago irabazi dituzte, Urumea bailarako taldeek.

Neska jubenilen derbian, Mundarro nagusitu zitzaion Hernaniri, Astigarragan (30-15).

Jubenil mutilek ere garaipena lortu zuten, 42-36ko emaitzarekin, Donibane taldearen aurka.

Hernaniko kadete mutilen lehen taldeak, gutxigatik ez zuten lortu garaipena, 28-30 galdu baitzuen, Eibarren aurka. Kadete neskek aldiz, irabazi egin zuten, 15-12ko emaitzarekin. Infantiletan, mutilen bigarren taldeak, Ordiziaren aurka galdu zuen (19-30), eta bigarrenak berriz, Eibarren aurka irabazi (24-28). Infantil neskek ere garaipena lortu zuten, Usurbilen aurkako partiduan (14-13). **K**

## Binakako Txapelketak badu aurreneko sailkatua: Uterga

Juanenea-Barrenetxea IVk eta Uterga-Agirrezabalak osatutako bikoteek irabazi zituzten larunbateko partiduak.

### HERNANI ERREMONTEA

Erremonteko Binakako Txapelketaren barruan, bi partidu utzi ditu pasa den asteburuak: bata, Juanenea-Barrenetxea IV eta Ansa II-Ionen artekoa, eta bigarrena, Uterga-Agirrezabala eta Matxin III-Endika aurrez aurre elkartu zituena. Juanenea-Barrenetxea IV eta Uterga-Arrizabalaga izan ziren garaile, 40-35

eta 40-37ko emaitzekin, hurrenez hurren.

Txapelketa osoan jokatu duten partidurik ikusgarriena izan zen aurrenekoa, Juanenea eta Barrenetxeak irabazi zutena. Izugarrikoa izan zen partidua, abiadura, eta dudarik gabe, Barrenetxea izan zen atzean, gakoak izan zuena, bereziki, 22-27 galtzen zijoazenean. Ordutik aurrera, buelta eman zioten.

Bigarrena ez zen hain ikusgarria izan, baina zirrara berezia izan zuten.

### Uterga, aurreneko sailkatua

Bigarren partidu horretatik atera da, hain justu, Binakako Txapelketako finalerdietarako aurreneko txartela.

Partidu horri esker, beste lau puntu gehitu zizkion Utergak sailkapeneko puntuazioari, hala, 24 puntu ditu, eta beraz, dagoeneko nahikoak dauzka finalerdietan aritzeko. Gero eta gertuago kokatu dira, baita ere, Azpiroz eta Barrenetxea IV. **K**

## Garaipenik gabeko asteburua, bailarakoek

Hernani eta Mundarrok senior taldeek, porrotez beteriko asteburua izan dute

### ASTIGARRAGA-HERNANI

SASKIBALOIA

Hernaniko lehenengo mailako seniorrek, galdu egin zuten Zarautzen aurkako partiduan (69-65). Lehenengo laurdenean, zarautzarrak nagusitu ziren, baina bigarren laurdenean, Hernani parean jarri zen. Hala ere, azken bi laurdenetan, Zarautzek gogor jokatu zuten eta lau puntuko diferentziarekin irabazi zuten partidua.

Mundarrok seniorrek ere ez zuten emaitza ona lortu eta porrotarekin itzuli ziren etxera. 68-57 galdu zuten Ordiziaren aurka. Lehenengo laurdenetik

nagusitu zen Ordiziko taldea, hala bigarren laurdenean, Astigarragakoek aurrea hartu zuten, eta Ordiziaren aurretik posizionatu ziren. Atsedendia ondoren, Ordizikoak pilak kargatuta itzuli ziren, eta Mundarrok garaitu zuten.

Senior nesketan ere, ez zen garaipenik egon, Mundarrok neskek galdu egin baitzuten Goierri taldearen aurka. Partidua oso orekatua izan zen, lehenengo laurdenean Astigarraga puntu bateko diferentziarekin posizionatu zen Goierri atzean utzita, bigarren laurdenean berriz Goierri aurrea hartu zion, zortzi puntuko diferentzia ateraz. Atsedendia ondoren, berriro ere Astigarraga izan zen hirugarren eta laugarren laurdeneko garaile, baina oso diferentzia gutxi aterata Goierri. Azkenik partidua (76-74) amaitu zen. **K**

### EGURALDIA

#### GAUR

Hotz haundiagoa espero da gaurko, ipar-ekialdeko haizea ahula ibiliko da eta horrek tenperatura baxuak izatea eragingo du. Egunaren hasieran prezipitazioak eragin daitezke. **Min.5° / Max.8°**

#### BIHAR

Eguna hotzarekin hasi arren, orduak aurrera joan ahala, epeltzera egingo du. Arratsaldean berriz, hodeiak ugari egingo dira, baina litekeena da ateri eustea. **Min.4° / Max.13°**

(euskalmet)

### TELEFONO ZENBAKIAK

**TAXIAK** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

### FARMAZIAK

**Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauetz: Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) 943 336022 **Goizueta:** Nagusia 64 948 514353

### IRAGARKI MERKEAK

**Etxea salgai Epelen**, 51 m2, garajearekin. **Deitu: 672 248 563**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

# Aurreneko postuan berdinduta, Evgeny Makarov izan da txapelkun azkenean, Edu Sanzen aurretik

Seina punturekin bukatu dute, eta beraien artean jokatuakoa irabazi izanak eman dio garaipena, Makarovi. Miguel 'Xerpa' izan da Hernaniko onena, Maitane Otaolea aurreneko emakumezkoa, eta Alain Gonzalezek eta Nikolas Sanzek irabazi dute Haurren Txapelketa.

## HERNANI XAKEA

Estu zeuden gauzak, Hernaniko Xake Txapelketaren azkeneko jardunaldia iristean; eta oraindik eta estuago geratu ziren, azkenean: seinu punturekin, aurreneko postuan berdinduta bukatu dute Evgeny Makarovek eta Edu Sanzek; eta beraien arteko partida irabazi izanak eman dio txapela, Makarovi.

Makarov eta Miguel Xerpa hernaniarraren arteko partida zen erabakigarria, igandean. Eta berdinketarekin bukatu zen, haien artekoa. Horrekin, eta Edu Sanzek Udo Esnaolaren kontra lortutako garaipenarekin, bukatu zuten berdinduta, sailka-

penaren gorenean. Hirugarren postuan ere, berdinketa izan da azkenean, Xerpa eta Eneko Martiarenaren artean, bost punturekin. Eta horrela, aurreneko hernaniarraren saria jaso zuen Xerpak.

Iñaki Erdozio izan da bosgarren, 4,5 punturekin; eta seigarren postuan, 4 punturekin, sei lagun: Udo Esnaola, Ibon Ramos, Oxan Altuna, Joxe Ramon Altuna, Javier Burgos eta Mikel Zubia.

Maitane Otaolea izan da aurreneko emakumezkoa, 3,5 punturekin, Eli Agirrerri partida erabakigarria irabazi ondoren. Eta saria izan zuen Otaoleak: aurreneko aldiz aritu direlako



Alain Gonzalez, Evgeny Makarov, Miguel 'Xerpa', Nikolas Sanz, Edu Sanz eta Maitane Otaolea, sariekina.

hiru emakume, Hernaniko Xake Txapelketa jokatzen.

## Alain Gonzalez eta Nikolas Sanz onenak, haurretan

Igandean jokatu zen, baita ere,

Haurren Xake Txapelketa Azkara, eta 12 hurrek hartu zuten parte. 11 urtetik gorakoetan, Nikolas Sanzek irabazi zuen, Jon Sagarnaren aurretik; eta 10 urtetik beherakoetan, Alain

Gonzalez izan zen onena, Ekain Estefanori aurrea hartuta.

Beraien arteko finalean, gazteena nagusitu zen, nagusiagoaren aurrean: Alain Gonzalezek irabazi zuen partida. **K**

# Garaipen garrantzitsuak, Hernaniko bi talde nagusiek

Neskak Aurrera de Vitoriari nagusitu zitzaizkion, eta mutilek Zumarragan irabazi zuten. Mundarrok berdindu egin zuen, Axularren kontra.

## ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA

Kontrario zuzenak izan dituzte aurrez aurre, asteburu honetan, Hernaniko eta Mundarrok talde nagusiek. Eta garaipen garrantzitsuak lortu dituzte hernaniarrek: 3-1 nagusitu ziren Euskal Ligako neskek, etxean, Aurrera de Vitoriaren kontra; eta 1-3 irabazi zuten Ohorezko Erregional mailako mutilek, Zumarragan, Urolaren kontra.

Zubipen hiru puntuak lortuta, Euskal Ligako zortzigarren postura igo da Hernani, Aurrera de Vitoria bera atzeratuta, eta jaitsiera postuekin tartea haundituta. Ohorezko Erregional-tan, berriz, hirugarren daude



Euskal Ligako neskek, goletako bat ospatzen, larunbateko partiduan.

txuri-berdeak, eta puntu bakarera dute Anaitasuna bigarrena. Mikel Lizarazuren bi golek eta Harriren beste batek, goiko postuen borrokan bete-betean mantendu dute taldea.

**Mundarrok berdindu, etxean** Garaipenik gabe geratu zen, ordea, Mundarro, Erregional Preferenteetan. Axular zeukan aurrean, hiru puntu gehiagorekin zegoena; eta ezin izan zuten sailkapenean harrapatu: 1-1 berdindu zuten Zarkumende-

gin. Hasi eta berehala aurreratu zen talde donostiarra, hirugarren minutuan; baina ez zuten etsi moreek, eta erritmo altua jarri zioten partiduari, berdinketaren bila. Izan zituzten aukerak, aurreneko zatian; baina ez zuten gola egiten asmatu.

Bigarren zatian lortu zuten hori, baina soilik 15 minutu falta zirenean. Ordura arte, behin eta berriro saiatu ziren; eta Ivanen golaren ondoren, garaipenarena ere bilatu zuten, baina ezin izan zuten lortu. **K**



Valentziako Maratoian parte hartu zuten sei hernaniar, lasterketaren bezperan.

# Hernaniar koadrila bat, Valentziako Maratoian

Sei lagunek hartu zuten parte igandean, eta lauk bukatu zuten. Ane Otaegi, bigarren Oianguko Krosean.

## HERNANI ATLETISMOA

Valentziako Maratoia jokatu zen igandean, eta bertara joan zen sei laguneko hernaniar taldea ere, 42,195 kilometroko proban parte hartuz. Fermin Tolosak 3:06:23 denboran osatu zuen; Fernando Gonzalezek 3:22:40;

Martxel Rodrigok 3:25:36; Javier Gonzalezek 3:49:02; eta Julian Menak eta Paco Gallegok proba utzi behar izan zuten, 27garren kilometroan.

## CD Hernaniko 12 atleta, Oianguko Krosean

Igande goizean bertan jokatu zen Oianguko Krose ere, Ordizian. Eta bertan izan ziren CD Hernaniko 12 atleta, kategoria ezberdinetan. Ane Otaegik, gainera, podiumera igotzea lortu zuen, junior mailan bigarren sailkatuta. Zazpigarren izan zen Gorka Lopez de Arregi. **K**